



LIBURUA

Interesgarri jartzen

TESTUA | ARITZ GALARRAGA @aritzgalarraga

Ibilbide literario bat ere noizbait hasten delako, hemen aletu ditugu Hasier Etxeberria, Anjel Lertxundi, Aingeru Epaltzaren lehenengo emaitzak –ibilbide literario luzeko hiru idazle aipatzearen–. Ramon Saizarbitoriarenak *Egunero hasten delako* eleberri laburrean du abiapuntua, 1969an, aurten 50 urte. Eta ospatzen beharko genuke honezkeror. Ez bakarrik euskal eleberrigintzaren ordularia garaiko korrante literarioekin sinkronizatu zuelako; gaur egunetik ere –oroi, 50 urte–, irakurketa erabat freskoa eskaintzen digulako orobat.

Gaurkotasunik batere ez duela galdu, alegia. Gaiengatik adibidez, abortua, noski, gai zentrala, gaingidua irudi luke, baina gogoratu Nafarroako kasua, herenegun normalizatzen hasia. Migrazioa, present hemen, bigarren plano batean nahi bada, baina mende erdi berandua go bizi-bizi dauden ustelak agerraraziz: “Gero eta etorkin gehiago ari gara hartzen eta jendea ez da kontent. Inbasioa omen da”. Eta gaiez aparte, kontatzeko moduagatik adibidez, bi lerro bereiziz, bata protagonistari dagokiona: Gisèle Sergier, hogeita bi urte, kirrua, begi urdinak, luzea eta mehea; “beste klase


EGUNERO HASTEN DELAKO RAMON SAIZARBITORIA

LUR, 1969

batekoa da”, “beti daki behar dena egiten”. Haurdun geratu eta abortatu arteko borroka ezagutuko diogu. Eta beste lerroa, bakarriketa, itxuraz neskaren istorioarekin zerikusirik ez duena, baina baduena, sartu-irtenean baitabilta ideiak, esaterako eleberraren izpiritu harrapatzen duena: “Nik mila aldiz nahiago dut oraingo gazte hauen errebeldiaren arriskua gure garaikoen antzutasuna baino”.

Irakurleak eskuragarri, 2007ko Erein argitaletxearen poltsiko edizioa du, zeinak Saizarbitoriak berak idatzitako hitzaurre argigarria dakarren, nobela atera zen garaiko gure panorama zertan zen erakusten diguna. Eta aldaketa batzuk, idazleak han eta hemen sartu dituenak, baina kontuan izanik, “lehen ere irakurrita lukeen norbaitek oraingo bertsio hau berrirakurtzeko lana hartuko balu, ez litzatekeela konturatuko egin ditudan aldaketek”.

Gisèle bezala eleberria, aurrera doa, adoretu, euskal eleberrigintza, galdutako konfiantza berreskuratu batekin. Biharko bizitzaren aurrean esperantzatsu, bizitzera. Bizitza egunero hasten delako. Euskal literatura ere noizbat hasten delako interesgarri jartzen. ●



DANI BLANCO

RAMON SAIZARBITORIA ZABALETA
IDAZLEA
DONOSTIA, 1944